

PROIEKTUAREN ZENBAKIA: **EFA082/01**
PROIEKTUAREN AKRONIMOA: **URAMUGA**

URAMUGAren helburua da uraren ziklo integralaren kudeaketa hobetzea Nafarroa, Euskadi eta Akitania Berriko mugaz gaindiko eremuetan. Proiektuaren justifikazioa da urak ez dituela mugaz kontuan hartzen, eta, horregatik, uraren zikloa mugaz gaindiko eremuan kudeatzeak mugaz gaindiko ikuspegia eskatzen du: proiektuaren lurraldean saneamenduko azpiegitura partekatua daude (Urdazubi-Ainhoa eta Txingudiko badia), hau da, mugaren alde batean bildutako ura beste aldean arazten da.

Dauden mugapenak eta sortzen diren arazoak konpontzeko, beharrezkoa da batera jardutea mugaren bi aldeetan, konponbiderik eraginkorrenak ezartzeko. Era berean, eskualdean dagoen edateko ura baliabide mugatua eta partekatua da, eta, horregatik, batera jardun behar da mugaren bi aldeetan hornidura bermatzeko.

Testuinguru horretan, proiektuak barne hartzen ditu (i) uraren zikloaren gobernantza eta kudeaketa partekatua hobetzeko jarduerak, (ii) saneamenduko sistema partekatua hobetzea hainbat jarduketaren bidez, eta (iii) ur-hornidura ziurtatzea mugaz gaindiko lurraldean, egungo sareak hobetuz eta hornidurarako eta sareen arteko konexiorako aukera berriak aztertuz. Horretarako, URAMUGAk Nafarroan, Euskadin eta Akitania Berrian saneamenduaren eta edateko uraren kudeaketan eskumena duten erakunde publikoak ditu kide eta bazkide.

Hona hemen proiektuaren emaitzak:

- 1) Lankidetzaren esparru egonkor eta iraunkorra uraren kudeaketa partekaturako
- 2) Saneamenduko azpiegitura hobeak
- 3) Hornidurako azpiegitura hobeak eta baliabide hidrikoak eta sareak konektatzeko aukerak hobeto ezagutzea. Emaitza horiek onuragarriak izango dira hala lurraldeko biztanleentzat (saneamendu eta hornidurako zerbitzuak hobetuko baitira) nola ingurumenarentzat (uraren kalitatea hobetu eta uraren kudeaketa iraunkorragoa ahalbidetzen baita).

– **Titulu osoa:** Uraren zikloaren kudeaketa jasangarria eta baterako gobernantza mugaz gaindiko arroetan

– **Deialdia:** Interreg POCTEFA 2021- 2027

– **Laburpen-esaldia:** URAMUGAren helburua Nafarroa, Euskadi eta Akitania Berriko mugaz gaindiko eremuetako uraren ziklo integralaren kudeaketa hobetzea da. Proiektuaren lurraldean hornidura eta saneamenduko azpiegitura partekatua daude; horregatik, dauden mugaketak eta arazoak konpontzeko, beharrezkoa da mugaren bi aldeetan batera jardutea.

– **Aurrekontua guztira:** 3.627.435,74 €

– **Baztango udalaren aurrekontua:** 207.860,52 €

- **Bazkide nafarrak:** NILSA eta Bera, Lesaka, Baztan, Urdazubi eta Luzaideko udalak
- **Beste bazkide batzuk:** Servicios de Txingudi–Txingudiko Zerbitzuak S.A. (Euskadi) eta Communauté d’Agglomération du Pays Basque–Euskal Hirigune Elkargoa (Akitania Berria)
- **Epea:** 2024/01/01etik 2026/12/31ra